

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Simulatutako enpresen VIII. Azoka egin da gaur Tafallan

Hamaika ikastetxek erakutsi dituzte euren enpresa proiektuak

Asteazkena, 2017.eko azaroak 8

Tafallako Politeknikoan erakutsi dituzte gaur simulatutako enpresa proiektuak. Kudeaketa administratiboa eta Administrazioa eta Finantzak erdi eta goi mailako graduetak ikasleek landutako enpresa proiektuak dira. Lanbide Heziketako ikasle hauek “Enpresa ikasgelan” eta “Enpresa simulazioa” moduluetan lantzen dituzte era honetako ekimenak, non ikasleak langile bilakatzen diren eta euren sortutako bulegoetan lan egiten duten.



Lanbide Heziketako Zerbitzuko zuzendari Esther Monterrubio simulatutako enpresen VIII. Azokan.

Ikasketa modu erabat praktikoa da eta ikasleen gaitasunak ebaluatzeko eta formatzeko ingurune egokiak sortzen laguntzen du, bai lanpostuari lotutako gaitasun profesionalak, bai gaitasun sozialak lantzeko.

Gelan ikasitakoa praktikan jartzea, gainerako ikasleekin harremanetan egotea eta enpresa azoka batean parte hartzea formazioan laguntzeko moduak dira era honetako ikasketen kasuan, merkataritza akordioetatik eta merkataritza ekintzetatik irakaspenak lortzeko. Laburbilduz, enpresa simulazioak metodologia egokia dira lan eremuan hain beharrezkoa diren gaitasun tekniko, pertsonal eta sozialak garatzeko; horregatik sustatzen dira lanbide heziketa zentroetan.

Zortzigarren edizioa

Dagoeneko zortzigarrenez egin da Nafarroako enpresa simulatuen azoka; urtero ikastetxe batek hartzen du azoka eta salmenta eta esperientzia trukaketa erakus-mahaiak jartzen ditu.

Administrazio eta finantza ikasketak eskaintzen dituzten lanbide heziketa zentro publiko eta itunpekoak elkartzen dira urtero. Aurten Tafallan izan dira: Síndrome Down Elkarte, M^a Inmaculada Lanbide Heziketa ikastetxea, Cuatrovientos, Estella, Mariana Sanz, Donapea, ETI, Tafalla, Carlos III, Lekarotz-Elizondo eta EGA-San Adrián.